

ASTIGARRAGA 

Astigar Elkarteak Sagardo Etxea lortzeko asmotan

ASTIGARRAGA. DV
J. ORMAZABAL

Astigar Elkarteak orain arte Sagardo Etxea lortzeko asmotan eman dituen pausoak -Talde bera- ren esanetan- argitzen jarraitzen degu: 1990.eko irailan 20an: Sagardo Etxearen aurreproiektu abiapuntu moduan bildutakoen artean puntu batzuen bideraketa planteatzen da. Horien artean, etxe kokapenari buruzako honerako hirigintz estudio, memoria baterako zirriborroa, bisitaldi-bidai baten programa eta azkenik parte hartzen ari garen elkarte, talde eta instituzioen haserako diru-aportazio txiki bat guzti honi aurre egiteko: Aipatutako gaien berri emateko eta koordinatzeko Astigarragako alkatea arduratzen da. 1990.eko abenduak 4an: Astigarragako Udalak Sagardo Etxea hirigintz kokapenerako aurre-estudio enkargua «normas subsidiarias» delakoa egiten ari den ekipoari egiten dio. 1991.eko otsailaren 5an: Orain arte biltzen ari garen partaide gehienok Kultur Etxean azaldurik, zenbait puntuetaz informazioa ematen da, alegia, irailaren 20.ko akordioaren tramitez eta eskualdeko herriko erakunde eta Udaletxei Sagardo Etxea egitasmoaren berri nola parte hartzeko konbitea luzatzeko xehetazunaz.

EL DIARIO VASCO

19 de abril de 1992

Domingo, 19